

### JOAN BAXURKO ETA ANSOLA OLERKARIA

Irun-Urantzu'ngo urian il da euskal-olerkari au, igaro dan Aben-  
dua'n (1957-XII-25). Ondarrabiarra sortzez (Jaizkibel mendiko "Purgato-  
riyo" bordan jaio: 1890-V-29). Irun-Urantzu'n bizi izan da urte askotan.  
Urruñe'ko "Auskinenborda"-n, gerra denboran. Arotz-lanean irabazi du  
eguneroko ogia. Gizon ona eta apala, langillea, kristau zintzoa, euskaldun  
jatorra; ikasi aundikoa izan ezarren jakinzalea hai, adimen argikoa oso,  
asko irakurria, euskeraz batez ere; benetan maite izan du euskera. Ama-  
zortzi urte inguru zituala Pello Mari Otaño'ren olerkiak irakurri zituan,  
eta bertsuak egiteko zaletasuna sortu.

Gerra aurretik Irun-go "El Bidasoa" astekarian eman zituan olerki  
ugari. Urruñe'n egindakoak biozketa aundikoak dira; argitara eman gabe  
daude oraindik. Olerki asko egin eta argitara eman ditu euskal-aldiz-  
karietan. Poema luze batzuk ere bai: JESUS (Jesukristo'ren Bizitza,  
Arantzazu'n, 1954), IÑAZIO DEUNA (Aita San Iñazio'ren Bizitza, Val-  
verde'ren Irarkola'n, 1955), SEBE PEÑA IBILKARIA'RI (Itzaropena,  
1957), ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑA'REN POEMA LABURRA (Arantza-  
zu'n argitaratzen orain). Sariak ere irabaziak ditu: Bayona'n, Miarri-  
tze'n, Sara'n, Buenos Aires'en (Regino Galdos saria) etab.

Irun-Urantzu'n beste entieru baten ikusi ez dan beste jende joan  
zan Baxurkorenera. Euskaltzaindia'ren izenean Aita Larrañaga Apezpi-  
kua, Aita Manuel Lekuona, Anai Berriotxo eta José Andoni Loidi. G. B.  
euskera oso maite izan duen Bidasoar au.

N. A. G.

### EUSKALTZAINDIAK ILBELTZEKO 12 - AN BILBO - N ANTOLATU ZUEN JAIALDIA

Igaz Azkue-ren gorazarrean bezala, Euskaltzaindiak aurtengo ilbel-  
tzeko 12-an jaialdi aundi bat antolatatu du Bilbo-n. Erregetan egiteko  
asmoa zegoan, egun orretan oitura artzeko, baiña arrazoi batzukatik  
atzeratu egin zen. "Gabonetako agerkizuna" izenarekin D. Jesús Gon-  
zález apez jaunak Testamentu zaarreko ta Berriko zenbait agerkizun  
aurkeztu zituen.

### EUSKERAZKO DOTRIÑA BERRIA BIZKAIAN

Euskaltzaindiak igaz, ikastaroa asterako, Bilbo-ko apezpikuaren  
eskabidez Espaiña guztirako egindako dotriña berria itzuli zuen Biz-  
kaiko euskerara.

### EUSKERA ELEIZETAN

Bilbo-n igazko abenduan irurren bat egon zen Jesuiten Kolegio-ko  
eleizan.

Aurten euskerazko misiñoak izan dira San Juan-go eleizan igaz bezala; gaiñera neskameentzat ere bai Jesuiten Jesusen Biotz Sakratuaren eleizan. Eskolapioetan leenbiziko ostiraletan arratsaldean meza bat egoten da. Frantzizkotarrak ere egin dituzte bederatzizurren bi batera.

Astrabuduan Ostiral Santuz Kurutze bide bizi bat egin zen, euskaldunentzat euskerazko itzak izan zirelarik, Gatika-n "Pasionea" eman zen erramu igandez.

### **BIZKAIKO BERTSOLARIEN LENENGO SARIKETE**

Aurten Bilbo-n Euskaltzaindiak antolatuta, Bilbo-ko jaien barruan, Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea egin da. Ama Virgiñaren egunean, agustuko amabostean egitekoa zan, baiña euriagatik atzeratu egin bear izan zen eta agustuko 24-an egin zen Arenala puntatik puntara betterik zegoala. Bizkaiko txapeldun Valentin Embeita jauna gelditu zen eta Bizkaiko Diputaziñoaren kopa eta iru milla peseta eman zitzaizkan; bigarren, Juan Ormaetxe jauna eta Bizkaiko Ahorro-kaxaren kopa eta bi milla peseta; irugarren, Jose Alberdi jauna eta Bilbo-ko Ahorro-kaxaren kopa eta zazpireun eta berrogeta amar peseta; laugarren, Asensio Bidaurrezaga jauna, bosteun peseta; bosgarren, Eusebio Zubiaga jauna, bosteun peseta; eta azkenez Pedro Kastrejana eta Florenzio Zarraga, bosteun peseta hakoitzari. Bizkaiko errietatik gente asko eta asko etorri zen eta datorren urterako beste bertsolari asko prest daude su ta ke ekiteko, leenbizi errietan, ia nor geldituko Bilbo-ko finalerako.